

Euskaltzaindiak gordeko du Olaso Dorrearen ondare bibliografikoa

Ondarearen kontserbazioaz eta katalogazioaz arduratuko da hiru urteko epean

Erredakzioa. Donostia.

Olaso Dorrea Sorrerakundearen ondare bibliografikoa eta artxibokoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da hemendik aurrera, Euskaltzaindiak eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak otsailaren 13an sinatu zuten hitzarmen baten ondorioz. Horretaz gain, hitzarmenaren arabera, Euskaltzaindiak bere gain hartuko du Olaso Dorrearen ondarearen kontserbazioa eta katalogazioa. Hiru urteko epea izango du Akademiak lana bukatzeko. Beraz, Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da George Lacomberen Biblioteka eta Olaso Dorrea Sorrerakundearen Artxibo Historikoaren XX. mendeko atala, Monzon-Ganuja familiaren ondareak barne.

Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen hitzarmena eta Olaso Dorrea Sorrerakundearen izenean Jose Luis Elgoro lehendakariak.

Maria Dolores, Isidro eta Telesforo Monzonek eta Maria Josefa Ganuzak sortu zuten Olaso Dorrea Sorrerakundea. Olaso Dorrea Georges Lacombe Ondarearen jabe da. Horretaz gain, Olosoko Ondarea eta Eskuratutako Ondare dokumentalen jabe era bada. Georges Lacomberen bilduma euskararen ikuspuntutik Euskal Herriandagoen bilduma garrantzitsuenetarikoa da. Horretaz gain, historia aldetik ere garrantzi handia du.

LIBURU ESANGURATSUAK.

Egile eta liburu esanguratsuen lanak gordeko dituztela nabarmendu du Euskaltzaindiak. Hala nola Leizarragaren Testamentu Berria-ren bi ale, Bizkaierazko Katixima, Voltaireren Tresora, Poza Lizentziatuaren De la antigua lengua, Andre Favynen Histoire de Navarre Pierre de L ' Ancreren L'inconstance des mauvais anges et demons, Axularren Guero, Oihenarten Notita Utriusque Vasconiae eta Agosti Xahoren Voyage en Navarre.